



BILDU Talde Politikoa
Grupo Político BILDU



Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – Faxa 943481720 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia/San Sebastián a 13 de abril de 2015

MOZIO ARRUNTA, BILDU UDAL TALDEAK MARTUTENeko ARANTZAZU AMA IKASTOLAKO ESKOLA AUTOBUSARI BURUZ AURKEZTUA

Hainbat urtean zain eta kezkatuak egon ostean, Martuteneko eta Txomineneko auzotarrak ikusten ari dira lanak hasiko direla, horien bidez ahaztu egingo dituztelako euria sano egiten duen bakoitzean Urumearen egoeraz kezkatuak egotea. Txomineneko eta Martuteneko lehen fasean eraikinak eraitsi, biztanleei aldi baterako eta behin betiko bizitegiak eman eta lanak lizitazioan jarri dituzte. Azkenean, lanean ari gara Donostiako bi auzo horiei erasan egiten zien uholde arazoa konpontzen.

Lanak, hortaz, abian dira, eta denok ondo dakigunez, bi auzoek “bizikide” izango dituzte halakoek ezinbestean dakartzaten kalte eta eragozpenak. Lanek auzotarrengan eragina dute eta izango, bai eta Martuteneko Arantzazuko Ama ikastola publikoko haurrengan, Txomin eta Martutene auzoetako hezkuntza beharrei erantzuten baitie.

Arantzazuko Ama ikastola Haur eta Lehen hezkuntzetako ikastetxea da; hau da, ikaslerik gazteenak hartzen ditu, eta, gaur egun, eskola garraioaren zerbitzua eskaintzen du.

Duela gutxi ikastolako hezkuntza komunitateak jaso egin du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren jakinarazpen bat, non esaten zin eskola garraioa kentzea erabaki duela, hori eskaintzen jarraitzeko gutxienezko tartearen baldintza (2 kilometro egotea) betetzen ez delako.

Halere, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako hezkuntzako arduradunek berriro aztertzea une honetan aurrezteko erabaki hori, lanek iraun bitartean, behintan haietan izango den intentsitateak gomendagarriago egin arte txikiak lantoki horietatik hainbeste ez igarotzea. Batez ere kontua izanda, besteak beste, Txomin eta Martutene elkartzeko dituen Martuteneko zubia kenduko omen dutela.

Administrazio publikoek alde horretan sustaturiko lanak hala, ez da inondik inora egokia egun Arantzazuko Ama ikastolak duen garraio zerbitzua ematea proposatzea; gertaera horri, bestalde, kezka eta ziurgabetasuna eragiten ari da bai ikastolako zuzendaritzarengan eta langileengan nahiz aipatu ikastolako ikasleengana.

Horiek horrela direla, ondokoa onartzea proposatzen dugu:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari euts diezaiola Txomineneko Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolara doan eskolako autobus zerbitzuari, gutxienez, ikasleak aipatu ikastetxera joateko darabilten ibilbidean eragina duten lanek iraun bitartean.

SIN.: Josu Ruiz Martin,
Bildu udal taldearen bozeramailea.